



ESKOLATZEKO PROGRAMA OSAGARRIAK

NORENTZAT?

16 urtetik beherako eta 14 urtetik gorako ikasleentzat, betiere eskolan egokitzeko arazo larriak badituzte eta ikastetxean bertan haiei laguntzeko bestelako neurri arruntak eta apartekoak nahikoak izan ez badira.

ZER DIRA?

Eskolaren testuinguru arruntetik kanpo garatzen diren programak dira. Banakoarentzako programak dira, ikastetxearen barruko beste neurri batzuk agortu ondoren aplikatu daitezkeenak. Aldi baterako programak dira, ikasturtea bukatzean amaitzen direnak eta berriro ere eskatu behar direnak hurrengo ikasturtean horiekin jarraitu nahi bada.

Programa hauen helburua ikasle horien egokitzapen pertsonala eta soziala bultzatzea da, bai eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ezarritako helburu orokorren ildotik aurrera egitea ere. Barne har daitezkeen eskulanean eta lan-aurreko jardueren helburua ez da lanbide-hastapena (horretarako beste programa batzuk baitaude), motibazioa piztea eta hezkuntza-edukiak ikasteko egoera izatea baizik.

ZEIN DA IKASTETXEAK DUEN ERANTZUKIZUNA?

- Ikastetxeari dagokio ikasleren batek programa hauek jarraitzeko proposa- mena aurkeztea, bere proposamena justifikatuz, partaidetzazko eta delibe- raziozko prozesu baten ondoren.
- Eskolatzeko-programa osagarri batean dagoen ikasleak ikastetxeko ikasleeta- ko bat izaten jarraitzen du, ondorio akademiko guztietarako (ikasturtean matrikulatzea, ebaluazio-aktetan barne hartzea, Eskolaketa Liburua betetzea eta abar) bai eta ikastetxeak jarduten duen bestelako ondorioetarako ere, esaterako beken eskaria, ziurtagiriak eta abar.
- Eskolatzeko-programa osagarriaren arduradunarekin lankidetzan, Ikaslearen eskola- proiektua definitzea eta ateratzen dion etekinaren jarraipena egitea, ikastetxeko irakasle baten bitartez.
- Programaren Jarraipen Batzorde batean parte hartzea.
- Ikasleari harrera egitea, Batzordeak egokitzen jotzen badu berau ikastetxera itzultzea.

ZEIN DA PROGRAMA HAU BURUTZEKO PROZESUA?

Ikastetxeko zuzendaritzak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan aurkeztuko du eskaria.



Pedagogi Berrikuntzarako Lurraldeko Buruak, laguntza-zerbitzuaren eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren txostenak dituela, eskariaren egokitasuna aztertuko du. Erantzuna baiezkoa balitz, Osabidezko Hezkuntzako Teknikariarekin batera zehaztuko du ikasleari harrera egingo dion ikastetxea zein izango den.

Ikastetxeak ikaslearen tutore izango den irakaslea izendatuko du eta, bere eskolatzeko osagarria burutuko duen ikastetxearen arduradunarekin batera, ikaslearen eskola-proiektua eta jarraipen-plana definituko du.

Eskolatzeko-Programa Osagarrirako proposatutako ikasleak ikasturtearen hasieran sartuko dira programan.

Salbuespen gisa, aurrez ikusi ezin izan delako edota beharra gero suertatu delako, ikasturtearen lehenengo hiruhilekoan sartu ahal izango dira ikasleak Eskolatzeko-Programa Osagarrian.